

Liburuak

KRITIKA

Egunsentiaren esku izoztuak. Xabier Lete.
Pamiela. 206 orrialde. 18 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Haragiztatzearen mugetan

HAMASEI URTE idatzitakoa argitaratu barik, eta Xabier Lete sakontasun itzel batekin dator orain, barruak hustu eta poema hunkigarrienak opatzera. Lourdes Iriondoren falta existentziaren zentzu falta bihurturik ia, heriotzaren eta denboraren liburua da *Egunsentiaren esku izoztuak*. Ez dago ebidentziarik beste mundurik dagoenik dioskunik, edo ez dagoenik segurtatzen digunik. Poema hauek dira testigu. Lourdes Iriondoren gorputz diskretua da haragia abandonatu duen izpiritua, eta perfekzio ukiezin hori, purutasun hori, presente dago lerro haue-tan, Xabierrek ematen dio bizia bizirik ez denari. Oroitzapenak eta halabeharrez aurrera doazen egunak. Harrapatuturik gaude, guztiok, paradoxa horretan.

Testuetan zehar existentzialismoa dabil, baina baita zer edo zertan sinistu beharra ere. Poesiak sortzen du bien arteko kontra-dikzio ezaren ilusio antzeko bat: bizitzaren taupada ahula da, eta heriotzaren legea bortitza, baina bizi dira joan zirenak, eta gure zain daude, etorkizunik gabeko leku batean. Horregatik isiltasun arraro bat da nagusi egunsentiaren esku izoztu hauen fereka artean. Idatzi baino gehiago Letek idazkera ezabatu egingo balu bezala. Itxaronaldi bat da azken batean lutua, itxaronaldi intensua eta mingarria, argi oraindik dudatiaren zain. Egunsentiaren esku izoztuen zain. Paisaiak datoz orduan: neguko ordokiak, Italiako lautadak, mendi elurtuak. Paisaia horiek arnasbide bihurtzen dira, horizonte zaharberritu, esperientzia berriaren eskenatoki: mundua, gu joandakoan ere, hor egongo da.

Zenbat poeta ibili den ahots xume horren bila, errenditurik eta bihotza zabalik. Eta zein gutxi diren kapaz hain elegante adierazteko pena eta galera. Letek hitz egiten duenean hitzek sortzen dioten oinazeaz, urradura hori berori bihurtzen da poesia. Liburu gogorra eta ederra, salbazio mezu batekin bukatzen dena —“salbatuak elkarrekin eta maitasunean glorifikatuak betirako”—, testu sakratu baten indarra dauka eta era berean humanoa da. *Egunsentiaren esku izoztuak* ez da bizitzari buruzko hausnarketa bat bakarrik, poetikari buruzko lezio handi bat ere bada: amets kutsua kentzen dio eta gauzen atzena deskribatzeko erabiltzen du. Presentzia, maiz, absentiaren onarpenetik bakarrik etor daiteke.

Absentiaren onarpen hori bihurtzen da orduan berriz batera egotearen nahia, gertakariaren gainetik komunikatzeko borondatea, bizikidetzat denaren eta ez denaren artean, hustasunaren eta den guztiaren artean. ■

Martin Anso elezaharrak berritzen

Martin Anso kazetari donostiarra idatzi du *Ele zahar, ele berri* liburua; lehenago argitaratua zuen *Elezaharren bidetik* izeneko liburua-
ren jarraipena da, nolabait. Kazetari estiloan idatzita, 38 elezahar bildu ditu liburu berrian. Tartean, bitxikeriaren bat edo beste: zergatik zakurrek elkarren uzkiak usaintzen

dituzten, Erdi Aroko banderizoen kontakizunak, basurdeak Bilboko kaleetan ibili zirenekoak, bikingoei buruzko kontakizuna, giza arrainak, Sebastian santua... Elezaharrak dira asko, bai, baina Ansok berritu egin ditu horietako asko, garai batean izan zitza-keten esangurak bir-formulatuz. Gainera, Antton Olariagaren ilustrazioekin jantzita dator liburua. ■



Ele zahar, ele berri.
Martin Anso.
Alberdania.
220 orrialde.
14 euro.

MacArthur-Bates zerrenda euskararentzat

Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrendak balio du hizkuntza-jabekuntza goiztiarra aztertzeko. Horretarako, komunikazioaren inguruko hainbat aspektu hartzen ditu kontuan: ulermen eta ekoizpen lexikoa, ekintza eta keinuen bidezko komunikazioa, morfologia, gramatika... AEBetako MacArthur fundazioak sortutako tresna hau, ingeles hizkuntzarentzako pentsatu zen hasieran; denborarekin ordea, hainbat hizkuntzatar moldatu da tresna bera. Orain euskararentzat egokitu dute, urte askotako ikerketaren eta lanaren ondoren. Horretarako, besteak beste, oso kontuan izan dira

euskalki diferenteak, hartara Euskal Herri osoan erabilgarri izan dadin. ■



MacArthur-Bates. Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda.
Batzen artean.
UEU.
119 orrialde. 17,50 euro.